



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ITURRIOTZ

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-07	19:00	20:55

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Haizea Saez de Eguilaz, Goratz Gezala eta Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak:	Euskaraz: 12		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 7		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 2	31-50 urte: 5	51-65 urte: 4	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da eta Covid-aren berezitasunak aipatu dira.
2020 urtea	Orain artekoaren balorazio bat egin da eta geratzen diren hilabeteetan zein gauza burutu nahi diren argitu da.
2021eko aurreikuspena	Datorren urteko aurrekontuak aurkeztu dira, sarreraren eta gastuen azalpen xehetua emanaz. Aurkezpena ea eskuratu daitekeen galdetu da (grafikoak etab.). Web orrian jartzen dela aipatu da. Ikusteko lotura email bidez bidaliko zaie auzotarrei.
Auzoa	<ul style="list-style-type: none">· Ozentzio kalearen noranzkoaz galdetu da. Margotuko dela aipatu da. Goitik behera joateko norantza izango du.· Ozentzio 26. Portalera sartzeko arazoak, motorrak sartzen dira (Correos...) eta atera iristeko zailtasunak. Haiekin hitz egin duela aipatu du baina... kasurik ez. Oinezkoen eremua da, eta aztertuko da egoera.· Argiñene kalea, ezkerreko espaloia beti kotxez bete da eta ez dago tokirik oinez pasatzeko. Margotuko dela aipatu da eta horrekin gauzak argiago ikusiko dira.· Aparkaleku berririk? Dorre etxe ondoko eremua txukundu eta ongi jarri nahi da.· Hainbeste etxe egin beharrean aparkaleku gehiago egiteko eskatu da.

- Autokarabanekin zer? Marrak margotzeak lagunduko duela uste da (Altzibarren galiboa, esaterako). Debekatzeko aukeraz galdetu da. Herriko arazoa da.
- Zerbitzu guztiak Elizalden daudela eta edozertara Iturrioztik kalera igo behar dela eta, galdetu da ea ezin ote diren zerbitzuak auzora eraman, adibidez anbulategia. Aipatu da herriko egitura beti izan dela zerbitzuak plaza inguruan egotea. Iturriotzen komertzioa geroz eta gutxiago dago eta horrek sortzen du bizitasuna galtzea. Komentatu da komertzioa geroz eta gutxiago izatea auzotarrek bertan ez kontsumitzeagatik ere badela.
- Elkarte aurreko eremuan zein asmo dagoen galdetu da. Etxeak egiteko asmoa dago, baina oraindik ez dira hasiko. Eremu hori erosi eta aparkalekua egiteko eskatu da, baina eremu horrek etxeak egiteko aukera duenez, lur eremu horren balioa handiegia da, aparkalekuak egiteko.
- Elkartearen aurrean dagoen errekatxoa nori garbitu behar duen galdetu da. Erreken eta ibaien eskumena URA agentziak dauka. Begiratuko da nola dagoen garbiketa bideratzeko. Arratoi asko omen dago.
- Anerreko zubia: obra egin zuen enpresak kamioia sartu zuen sartu behar ez zuen lekuan eta beraz, haiei dagokie konpontzea. Juizioa egin da eta udalak irabazi du. Orsa enpresak epaia errekurrituko duen oraindik ez dakigu. Beraz, ikusteke dago zer gertatzen den.
- Herri bide asko itxi ditu jendeak eta pribatu egin ditu. Identifikatuta baldin badago, esan eta abisatuko da. Sarobe errekekako bidean, kanal bidearen inguruan, ataka jarri dute bi baserritarrek. GR bat da, EZIN da itxi. Eskaerak egin, argazkiak atera eta abisatzeko eskatu da.
- Ozentzio 26 (zapata kaja) aurreko eremua udalarena da eta jendeak bere jardina bezala hartu du (pizina jarri etab.). Eremu hori ezin du pribatizatu.
- Auzoko garbiketa. Okerrera doa, ea zein asmo dagoen galdetu da. Xorrolako geltokia, parkeko zakarrak frontoia... auzotarrek garbitzen dituzte eta kexa asko daude. Zaborrontzi gehiago edo beste zerbait, baina aldatu behar da. Auzolana edo DBHko ikasleei diru truk garbitzeko proposamena egin, asteburutan taldeka edo... Heziketa lana behar dela aipatu da. Kale garbiketakoak ez omen dira astero pasatzen. Zerbitzuari jarraipena egin.
- Frontoian itoginak daude, euria ari duenean jolastea zaila da.
- Etxe berria bukatzean Beheko Soroaren mantenuen bat egingo da? Etxearen inguruan lurra nahiko gaizki dago eta. Aztertuko da.
- Alde positibo bezala, zakarraren kamioia orduz aldatzeko eskatu zen eta bete da.

- Bengoetxea plazako eserlekuak eskatu dira.
- Ispilua jartzea eskertu da.
- Gasolineratik Iturriotzako noranzkoan autobusa baldin badago Ibarreko geltokian ez da ikusten. Ispilua eskatu da.
- Harrera etxeke langileak eta Dorre etxeke ekintzekin aparkatzea kostatzen da.
- Iriartenearen aurrean aparkalekurik ez da markatu eta behar dela uste da. Hondakinen bilketako kamioia pasatzeko moduan antolatu dira aparkalekuak.
- Ozentzio 26: plaza handi hori aprobetxatu. Parkea ezin da baina lurrean pintatu, labirintoa, txingo, twister...
- Auzo lokaleko altzariak hezetasunarekin hondatzen ari dira, zokaloa erortzen... Begiratu, udalak altzariak baldin baditu eraman...
- Dorre etxearen erabilera. Urte guztian zehar orain dagoen bezala edo ez? Urtarriletik aurrea printzipioz helduen tailerrak hasiko dira, moldaketekin (aforoak, ordutegiak...).
- Zuntz optikoa badago? Euskaltelek Moviestarreko kablea hartzen du eta ba omen du zuntza. Bi konpainia horiek bakarrik daude.
- Kotxeen abiadura: frontoi inguruan "kroxkak" jartzea eskatu izan da. Hala ere, lehen jarri ziren batzuk eta frontoiko horretan jartzearen inguruan desadostaturak zeuden udaletxean. Iturrioztik atera eta Alzibartik datozenak oso azkar datoz, autobus geltokiaren aurreko zebrabidean jendea ez da gelditzen. Errepide hau Aldundiarena da, beraz, egoeraren berri emango du Udalak.
- Xorrolaren ordutegia. Ilunabarrean luzatu da eta larunbatetan eguerdi arte luzatu da. Ea gehiago zabalduko den galdetu da (asteburutan), herrira igotzeko edo... Datorren kontraturako apuntatuko da ekarpena.
- Zakur kakak. Ere batzuk jartzea aztertzen ari da zakurrek bertan kaka egiteko baina arazoa sortzen dute horiek ere... Zakurrak galtzen denean isuna jarriko dela aipatu da. Arriskuko zakurrekin ere arautegia badagoela aipatu da. Gai honekin ere heziketa falta dela aipatu da.
- Frontoian jarri daiteke euria ari duenean hurrek lehentasuna dutela? Frontoi ondoko etxean bizi direnen kexak, etxe barruan ezin da lasai egon, asko entzuten da, oihartzuna dago. Lehentasunari dagokionez ez da ezer jarriko. Hemen ere elkarbizitza arau logikoak erabili beharko genituzke.
- Errotondako etxe berriaren garajeko sarrera oso txarra, aurrean ispiluren bat jarri beharko litzatekeela aipatu da.



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



· Etxe berrien baldintzez eta nolakotasunaz galdetu da: altuera etab. Soziedade aurreko etxeen altuera nolakoa da? Plan Orokorrean begiratu eta erantzungo da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,55
Bilera ongi gidatu da	8,82
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,36
Auzotar kopurua	4,82
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,27
Saioa probetxugarria izan al da?	7,80
Egunaren egokitasuna	8,27
Orduaren egokitasuna	8,27
Lekuaren egokitasuna	8,55